

Giza Baliabideetako Zuzendaria Zuzendaritza-organoetarako Langile- Hautaketarako deialdiaren inguruko kontrol mozioa

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 19an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko uztailaren 14an Tokiko Gobernu Batzordeak, FOD-1. puntuan, ordura arteko Giza Baliabideetako zuzendari titularra kargutik kendu zuen. Harrez gero, puntu berean ere hala erabakita, jardunean aritu da titular berria izendatu arte.

2015eko uztailaren 21ean, zuzendaritza organoetarako langile-hautaketarako deialdia luzatu zen barne saretik (Ingurumeneko zuzendaria, Hirigintza Sostengarriko zuzendaria, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zuzendaria, Lehendakaritzako zuzendaria eta Giza Baliabideetako zuzendaria karguak barnebilduz), deialdiari zegozkion epea eta baldintzak iragarri.

2015eko irailaren 8an Tokiko Gobernu Batzordeak, FOD-1. puntuan, deialdi berean zeuden hiru kargu (Ingurumeneko zuzendaria, Hirigintza Sostengarriko zuzendaria, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zuzendaria) izendatu zituen eta laugarren bat (Lehendakaritzako zuzendaria) ondorengo asteko Tokiko Gobernu Batzordeak, alegia, irailaren 15ean. Aldiz, Giza Baliabideetako Zuzendaria Zuzendaritza-Organoa inork eskuratu gabekotzat jotzea eta izendatzeko deialdi berria egitea erabaki zuen irailaren 8ko batzorde horretan, baina deialdian aurkeztu ahal izateko baldintzak aldatuz.

Azkenik 2015eko urriaren 1ean Giza Baliabideetako zuzendaria hautatzeko deialdi berri bat zabaldu zen eta 2015eko urriaren 20an Tokiko Gobernu Batzordeak, FOD-3. puntuan, izendapena egin berri du.

Udal Gobernuak izendapena libreki erabaki du, deialdiari dagokion bezala, izangaiak baloratzeko egoki irizitako baliabideak erabilita. Hori esanda, hau guztia harriduraz ikusi dugula aipatu behar dugu, eta udal langileek oraindik ere ezin dituztela ulertu beraien etorkizuneko prozedurak behatu beharko dituen arduradunaren inguruan izan diren gora-

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

beherak, baldintzeta aldaketak, hautapenaren hilabete eta erdiko atzerapena eta abar. Harridura are eta handiagoa da, aipatu diren prozesuak oraindik iragarri gabe zeudenean, pertsona batzuei zuzendariak izango zirela jakinarazi zietenean eta, beraz, bete zitzaketen baldintzak ezagutzea zegoenean, bide honetan prozedura aurkeztu diren pertsona batzuekiko begirunea galduz. Urriaren 19ko batzordean Juan Ramon Viles zinegotzi ordezkariak ez zuen ia argibiderik eman egoera honetaz, eta hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zaindu ditzala Udaleko hautaketa-prozesuetan edo lehiaketetan aurkezten diren enplegatu publikoak errespetuz tratatzea, hala nola hautaketa-prozesu edo lehiaketei dagokien deialdi publikoaren oinarrien betekizuna.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

El Pleno de la Corporación Municipal insta al Gobierno Municipal para que vele por tratar con el merecido respeto a las y los empleados públicos que se presenten a procesos selectivos o concursos municipales; así como por el cumplimiento de las bases de su correspondiente convocatoria pública.